

BERDINTASUNA MALERREKAN

**Malerrekako emakume eta gizonen
berdintasunari buruzko diagnostiko parte
hartzailea**

2024ko uztaila



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	2
2.	ARAUDI MARKOA.....	3
3.	DIAGNOSTIKO PARTE HARTZAILEA OSATZEKO METODOLOGIA	4
3.1	Oinarri metodologikoak	4
3.2	Prozesuan parte hartu dutenak.....	5
4.	BERDINTASUNA MALERREKAN: DIAGNOSTIKOA	6
4.1.	BIZTANLERIAREN INGURUKO DATU OROKORRAK	7
4.2	GENERO-ARRAKALAK EKONOMIAN.....	10
4.3	ZAINTZA LANAK ETA BEHARRAK	13
4.4	EMAKUMEEN PRESENTZIA	18
4.5	GENERO ROL ETA ESTEREOTIPOAK GIZARTEAN ETA KULTURAN.....	19
4.6	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA	21
4.7	MALERREKAKO ADMINISTRAZIOAN GENERO-IKUSPEGIA	24
5	ONDORIO NAGUSIAK ETA AURRERA BEGIRAKO KONPROMISOAK...	27
6	ITURRIAK-BIBLIOGRAFIA:	33


1. SARRERA

Malerrekako mankomunitatea osatzen duten 13 herriek emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko parte hartzaile bat egiteko erabakia hartu zuten 2023ko udazkenean. Erabaki hau, ordea, ez da lehenengoa izan.

Izan ere, INAI-NABIren dirulaguntza bati esker, 2022an zehar, Gizarte Zerbitzuetatik lehen “Berdintasunari buruzko diagnostikoa” osatu zen. Txosten horrek zenbait behar jarri zituen mahai gainean, tartean, mankomunitate mailan iraunkorki emakume eta gizonen berdintasun politikak sustatzeko beharra.

Gauzak horrela, mankomunitatearen agendan eta funtzioetan berdintasun politiken oinarriak jartzeko bigarren diagnostiko parte hartzaileago bat egiteko hautua egin dute mankomunitateko udalek. Oraingoan, emakume eta gizonen arteko berdintasun gaien egoerak aztertzeaz gain, berdintasun politikak abiatzeko oinarriak jartzeko balioko duen prozesu bat abiatu nahi izan dute.

Hauek izan dira prozesuaren helburuak:



Txosten honetan, Beintza-labaien, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubietako udalerrien inguruko datuak topatuko dituzu, bai eta aurrera begirako lanerako bide-orri bat ere.

Ondorengo orrialdeek emakume eta gizonen berdintasunerako politika iraunkorrak eta eraginkorrak planifikatzen laguntzeko balioko duela espero dugu.

Horretarako, metodologia oso garrantzitsua izan da, emaitzak udal-arduradun politikoekin, gizarte-eragileekin eta Malerrekako oinarriko gizarte-zerbitzuarekin kontrastatzea bilatu baita, horrela, hausnarketa eta erabakiak hartzea bultzatzeko.



2. ARAUDI MARKOKA

Gizartearen garapen jasagarri eta baketsu bat lortzea ezinezkoa da emakumeen kontrako bereizkeriei aurre egin gabe, ezin baita bakerik lortu gizartearen erdia indarkeria matxistaren arriskupean edo pobrezia feminizazioak baldintzatuta bizi bada. Horregatik, munduko herrialde eta administrazio guztien betebeharra da egiten duen jarduera eta ekimen orotan berdintasuna sustatzea eta sexu-diskriminazioak ekiditea. Hala jasotzen da hainbat araudi markotan. Ikus dezagun:

1979

CEDAW

NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen **emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa** Emakumeen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioan (CEDAW). Konbentzio hau Espainiar Estatuak berretsi zuen 1983an erabaki lotesle gisa.

1995

**NBE,
Beijing**

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean Beijingen antolatu zuen Emakumeari buruzko IV. Konferentzian adostu zuen **berdintasuna lortzeko estrategia arlo eta politika guztietan "GENERO IKUSPEGIA" txertatzea** izan behar zuela.

2015

**GGH/ODS
2030**

NBEren giza garapenerako 17 helburu estrategikoen artean 5.ak horrela dio: **Genero berdintasuna eta emakume eta neskatilen ahalduntzea lortzea.**

1999

**EBFI/TFUE
Amsterdam**

Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikularekin bat, Batasuneko kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

2007

**LOI
3/2007**

Espainiako Estatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoan ezartzen dira administrazio eta pertsona fisiko eta juridikoen berdintasunari buruzko betebeharrak.

2011

**Istanbulgo
Hitzarmena**

Nazioarteko giza eskubideei buruzko hitzarmena, **emakumeen eta etxeko indarkeriaren kontrako**, Espainiarentzat 2014tik loteslea dena.

**17/2019
FORU
ARAUA**

Nafarroako Foru Komunitatean Konstituzioan jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea egiazkoa eta eraginkorra izatea xede duen araua. Horretarako, Nafarroako erakunde publikoen zereginak zehazten dira, udalen betebeharrak barne.

3. DIAGNOSTIKO PARTE HARTZAILEA OSATZEKO METODOLOGIA

3.1 Oinarri metodologikoak


Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko bat egiteko modu asko daude. Metodologia batzuek, berdintasunari buruzko errealitatea ezagutaraztean gain, errealitatea eraldatzeko proposamenak jasotzea dute helburu. Metodologia horien artean daude esaterako, *IAP* edo Ikerketa Ekintza Partehartzailea eta *Reflect-Action* metodologiak, analisi edo errealitatearen azterketa kolektiboa egin eta errealitatea eraldatzeko, hobetzeko proposamenak bilatzen dituztenak.

Elhuyarrek 21 urte daramatza diagnostikoak era parte hartzaile edo konpartituan egiten, helburu gisa errealitatea ezagutzeaz gain, errealitatea aldatzea bilatuz. Finean, egoeraren analisia komunitateko partaideekin batera osatzeak sortzen duen ezagutza kolektiboa eta kontzientzia baliatzen da eraldaketarako estrategiak definitzeko.

Ariketa hori egin da Malerrekako mankomunitatean. Horretarako, mankomunitateko partaide kualifikatuekin **hiru gogoeta gune** egin dira emakume antolatuekin, udal ordezkariekin, udal eta mankomunitateetako langileekin, eta hainbat herritarrekin.

Prozesua teknikoki gidatzeko Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin izandako elkarlana ezinbestekoa izan da, baita Berdintasun zinegotziena ere.


Diagnostikoa osatzeko informazio iturriak eranskinetan daude, baina nagusiak hauexek izan dira:



Datu-kuantitatiboak:



Datu kualitatiboak:



Elkarrizketetatik datozen hitzak *urdinez eta letra etzanean* jarri ditugu. Ez dugu identifikatu zein elkarrizketetatik datozen, iturria zuzenean ez identifikatzeko.

3.2 Prozesuan parte hartu dutenak

Diagnostiko parte hartzailea egitea ezinezkoa litzateke talde elkarrizketatan, gogoeta guneetan eta egitasmoaren koordinazioan aritu direnen laguntza gabe. Beheko taulan jaso ditugu prozesuan parte hartu dutenen profila:

PARTAIDEAK	EMAKUME	GIZON	GUZTIRA
Mankomunitateko eta udaletako idazkariak	5	1	6
Gizarte Zerbitzuetako langileak	3	0	3
Mankomunitateko bestelako erakundeetako langile edo ordezkariak (Eskolatik, liburutegitik, Cederna-Garalurretik, Nafarlanenik)	3	1	4
Udal ordezkariak	12	3	15
Herriko elkarte (Erreka, Guraso elkarte, Arkupe) eta mugimendu feministako ordezkariak	5	1	6
Zaintza lanetan diharduten emakumeak	3	0	3
GUZTIRA	31	6	37

- 60 urtetik gorako pertsona bakarrak hartu du parte eta 35 urtetik beherako lauk.




4. BERDINTASUNA MALERREKAN: DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa 7 ataletan banatu dugu. Lehen atalean demografiarekin lotutako gaiak jorratu dira, biztanleria, migrazioa, zahartze-tasa eta zaintza beharrak bezalakoak. Bigarrenean arlo ekonomikori erreparatu diogu: bertan, enplegua, aberastasuna eta pobrezian jarri dugu arreta. Hirugarrenean, zaintza behar eta lanak aztertu ditugu. Laugarrenean, gizartearen kultura eta balioei erreparatu diegu, bertan, emakumeei eta gizonei lotutako rol eta estereotipoak aztertuz.

Bosgarrenean, partaidetza soziopolitikoari begiratu diogu, Mankomunitateko erabaki organoetan emakumeek duten presentzia, elkartegintzan edo instituzioetan duten presentzia eta emakumeen elkarrekin duten pisuaz aritu gara. Seigarrenean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaia jorratu da. Azkenik, zazpigarren atalean, Mankomunitateko administrazioak genero ikuspegiarekin lan egiteko dituen baldintzak aztertu ditugu.

DIAGNOSTIKOAREN ATALAK:




4.1. BIZTANLERIAREN INGURUKO DATU OROKORRAK

Malerrekako mankomunitatea osatzen duten 13 herrien artean 5.598 biztanle zeuden 2023ko urtarrilaren batean NASTATen arabera. Malerrekatarren % 52a dira gizonezkoak eta % 48 emakumezkoak.

Datua Iruñako populazioarenarekin edo Nafarroarekin konparatuta ohartuko gara ohikoa baino gizon gehiago daudela Malerrekan. Zerikusia ote du horrek berdintasunarekin?


Gaindegiak 2021ean argitaratutako ikerketen arabera bai.

1. Landa eremuko herrietako biztanleriaren maskulinizazioa



Landa eremuetako hustutzea arazo larria da Nafarroan eta populazio osoari eragiten dio. Baina ez neurri berdinean emakume eta gizonen. Gaindegiaren ikerketak¹ dio landa eremuetan emakumeek enplegurako aukera gutxiago izaten dituztela hiri guneetan baino, eta gainera, sexu-genero rolen lotura estuagoa dela landa eremuan. Horri guztiari gehitu behar zaio hiriguneetan zerbitzu publiko gehiago egotean zaintza beharrak arintzeko aukera gehiago egoten direla.

Malerrekako herrien biztanleriaren maskulinizazio-tasei erreparatzen badiegu Gaindegiak aipatutako joera berresten dela ikusiko dugu. 100 zenbakiak esan nahi du emakume eta gizon kopurua berdina dela, 100etik behera, emakume gehiago daudela, eta 100etik gora gizon gehiago. Donezteben eta Donamarian izan ezik, gainontzeko herrietan gehien bat gizonak bizi dira, eta aipagarria da Ezkurran gizonen kopurua emakumeen bikoitza baino gehiago dela.



NAFARROA	Beintza-Labaien	Bertizarana	Donamaria	Doneztebe / Santesteban	Elgorriaga	Eratsun	Ezkurra	Ituren	Oiz	Saldias	Sunbilla	Urroz	Zubieta
98,0	147,7	100,3	98,7	98,6	100,9	145,9	213,6	100,4	129,6	122,2	103,9	121,3	105,6

¹ Lurraldean andreen presentzia desorekatzen duen antolamendua, Gaindegia, 2020-02-04.

2. Populazioaren zahartzea

Gaur egungo gure gizartearen beste erronka nagusietako bat populazioaren zahartzea da. Oro har, Europaren erronka handietako bat da, baita Nafarroan eta bertako landa eremuan ere. Batetik, gero eta ume gutxiago jaiotzeak, bestetik, bizi itxaropena handitzeak, eta azkenik, ikasteko edo lanerako adinean daudenak herritik joateak (enpleguen, ikasteko aukeren, zerbitzuen edo etxebizitzaren bila) populazioaren zahartzean eragiten du.

- Jaiotzeak: Malerrekako populazioa txikia denez, urte batetik bestera asko aldatzen da joera. 2022an 38 haur jaiotzen ziren, horietatik 12 Donezteben, 8 Ituren eta 5 Sunbillan. Jaiotze-tasa ‰8,4koa izan zen. Nafarroakoa, aldiz, baxuagoa; ‰7,7koa.
- Heriotzak: Malerrekako, 2022an 46 heriotza gertatu ziren, heriotza-tasa ‰8,7koa, Nafarroaren berdina.
- Adinaren batezbestekoa: Malerrekako biztanleriaren batezbestekoa 46,7 urtekoa da. Nafarroakoa baina hiru urte gehiago. Nafarroako biztanleriaren batezbestekoa 43,8koa da.

Izan ere, NASTATen arabera, Malerrekako biztanleria zaharragoa da Nafarroakoa baino. Nafarroako biztanleriaren % 26,6ak 60 urte baino gehiago ditu, Malerrekako biztanleriaren % 33,1ak du 60 urte baino gehiago. Malerrekako herriei erreparatuta, soilik Donezteben dago 60 urtetik gorako populazio baxuagoa Nafarroako datuak baino, % 24,1arekin. Gainontzeko herrietan biztanleriaren herena inguru da 60 urtetik gorakoa.

NAFARROA	Beintza-Labaien	Bertizarana	Donamaria	Doneztebe	Elgorriaga	Eratsun	Ezkurra	Ituren	Oiz	Saldias	Sunbilla	Urroz	Zubieta
26,6	36,6	32,7	30,8	24,1	29,3	42,0	52,2	26,6	28,2	33,3	33,2	32,8	28,4

Populazioaren zahartzeaz ari garela, **nabarmena da emakumeen bizi itxaropena handiagoa dela gizonena baino**. Ondorioz, 85 urtetik gorako biztanleriaren artean emakume gehiago daude gizonak baino; **gizon bakoitzeko 1,59 emakume daude 85 urtetik gorakoak²**.

Biztanleriaren zahartzeak badu eragin zuzena herritarren bizi baldintzetan; diru-sarreretan (pentsioetatik bizi den populazio asko dago) baita zahartzeak dakartzan osasun eta zaintza beharretan ere. Ekonomia genero-ikuspegitik atalean landuko dugu sakonago Malerrekako aberastasun eta pobrezia genero-ikuspegitik, baita zaintza beharrak eta zaintzaileen lan baldintzak ere.


Jaiotze-tasak heriotzenak baina baxuagoak izanik, pentsa Malerrekako populazioa gutxituz doala, baina ez da horrela. Nahiko pareko mantentzen ari da azken urteotan migrazio fluxuak direla eta. Ikus dezagun hurrengo atalean.

² Diagnostico de igualdad: Valle de Malerrea y municipio de Bertizarana, 2022.

3. Populazioaren migrazioak

Malerrekako migrazio-tasa positiboa da. Honek esan nahi du Malerrekatik joaten direnak baino pertsona gehiago etortzen direla Malerrekara bizi eta lan egitera. 2022 urtean, NASTATen arabera, 221 pertsonak utzi zuten Malerreka. Aldiz, 239 pertsona berri etorri ziren Malerrekara bizitzera.

Bestetik, kanpoan jaiotako biztanleriaren proportzioa Malerrekako Gizarte Zerbitzuek hartzen duten eremuaren populazioari dagokionez, % 7,6koa da. Emakume gehiago dira kanpoan jaiotak gizonak baino (% 8,1 eta % 7 hurrenez hurren). Beheko irudian bilakaera ikus daiteke, 2013az geroztik. Inmigrazioa pandemia urtetik hona feminizatzen ari da Malerrekan.



Iturria:
Datua. Observatorio
realidad social de
Navarra (2023).

Etorri berrientzako Malerrekara etortzeko arrazoia, gehienetan enplegua izaten da. Malerrekatik joan ohi direnak ikasketa eta lanagatik egin ohi dute gehien bat. *“Ikastera Elizondora, Berara edo Iruñara joaten dira gazteak. Edo urrutiago. Ez dago aukera gehiegirik Malerrekan”.*

Gizonak gehien bat Errumania, Portugal eta Marokon jaiotak dira. Emakumeak, aldiz, Latinoamerika (Brasil, Honduras, Ekuador...) edo Errumanian jaiotak dira. Diagnostikorako elkarrizketatuek horrela ikusi ohi dituzte. *“Kanpotik etorritako gizon asko kamioilariak dira, emakumeak ostalaritzan edota zaintza lanetan dabilta gehiago”.*

4.2 GENERO-ARRAKALAK EKONOMIAN

Atal honetan Malerrekako ekonomiari begiratu diogu genero-ikuspegitik. Ekonomiak aberastasuna, ongizatea eta hauek sortzen dituen jarduerak aztertzen ditu, besteak beste. Horregatik, atal honetan enpleguaz eta diru-sarrerez ariko gara gehien bat. Arlo bakoitzak atal bat du.

1. Emakume eta gizonen enplegurako aukerak Malerrekan

2022an Malerrekako berdintasunari buruzko diagnostikoak jasotzen zuen moduan, enplegurako aukerak azertu ohi direnean hiru adierazle erabili ohi dira: jarduera-tasa, enplegu-tasa eta langabezia-tasa.

Jarduera-tasa: honek esan nahi du lan egiteko adinean dauden biztanleriaren artean zenbat dauden lan bila edo lanean (16 urtetik aurrerako biztanleen artean).

Datu honetan, ikusi ohi da lan egiteko adinean dauden biztanleen artean gizon gehiago egoten direla lan mundura sartu nahian edo lanean emakumeak baino. Nafarroan eta Euskadin, genero-arrakala jarduera tasan 9 puntu ingurukoa izan ohi da. Malerrekan, aldiz, pixkatxo bat baxuagoa da, 8 puntu ingurukoa. Hala ere, herri bakoitzean errealitatea oso ezberdina da.

JARDUERA TASA	NAFARROA	Beintza-Labaien	Bertizarana	Donamaria	Doneztebe	Elgorriaga	Eratsun	Ezkurra	Ituren	Oiz	Saldias	Sunbilla	Urroz	Zubieta
Gizonak	63,5	48,8	62,8	62,6	61,8	61,4	59,1	43,3	67,1	65,3	60,7	52,7	66,3	59,9
Emakumeak	54,6	47,2	50,5	52,8	52,9	58,3	49,1	34,0	58,6	62,1	48,9	52,3	48,6	49,6
ARRAKALA	8,9	1,6	12,2	9,9	8,9	3,0	10,0	9,3	8,5	3,2	11,8	0,4	17,6	10,3

Datuak ikusita, baieztatu daiteke lan mundura sartu gabe dauden emakumeen kopurua Malerrekako gizonena baino handiagoa dela, eta horrek ulertarazten du, gizonekin alderatuta, emakumeen dirusarrerak gehiago direla pentsioak, jubilazioak, dirulaguntzak, familiaren dirusarrerak edo ekonomia informalak enpleguari edo langabeziari lotutako ordainsariak baino.

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Enplegu-tasak esan nahi du lan adinean dauden, hau da 16 urtetik gorakoen artean zenbat dauden lanean. Gizon eta emakumeen artean dauden arrakalak 8 punturen bueltan ibiltzen da Nafarroan eta Euskadin. Malerrekan, herriz herri ikus daiteke aldea, baina oro har, arrakala handiagoa dago emakume eta gizonen enplegu tasen artean Nafarroa mailan baino (Mallerrekan 9,3koa da Batez beste).

ENPLEGU TASA	NAFARROA	Beintza-Labaien	Bertizarana	Donamaria	Doneztebe	Elgorriaga	Eratsun	Ezkurra	Ituren	Oiz	Saldias	Sunbilla	Urroz	Zubieta
Gizonak	57,8	46,3	56,9	61,1	58,2	58,0	55,9	41,2	66,2	65,3	55,7	49,1	63,9	54,0
Emakumeak	49,1	42,7	46,6	50,8	47,0	57,3	40,4	25,5	53,2	56,9	44,4	49,7	48,6	47,9
ARRAKALA	8,7	3,6	10,3	10,4	11,2	0,7	15,6	15,7	13,1	8,4	11,3	-0,6	15,2	6,1

Azkenik, **langabezia-tasari** erreparatuko diogu. 2018ko krisi ekonomikoaz geroztik, gehien bat industria eta eraikuntzari eragin dionak, emakume eta gizonen langabezia-tasak parekatuz joan dira, eta egun, aldea oso txikia da. Hala ere, herriz herriko datuei erreparatuta, adierazgarria da Eratsun eta Ezkurra herrien errealitatea, bertan langabezian dauden emakumeen kopurua oso altua baita.

LANGABEZIA TASA	NAFARROA	Beintza-Labaien	Bertizarana	Donamaria	Doneztebe	Elgorriaga	Eratsun	Ezkurra	Ituren	Oiz	Saldias	Sunbilla	Urroz	Zubieta
Gizonak	9,1	5,0	9,3	2,4	5,9	5,6	5,5	4,8	1,3	0,0	8,1	6,9	3,6	9,8
Emakumeak	10,1	9,5	7,9	3,8	11,3	1,8	17,9	25,0	9,2	8,3	9,1	5,1	0,0	3,3
ARRAKALA	-1,1	-4,5	1,5	-1,4	-5,4	3,8	-12,4	-20,2	-7,9	-8,3	-1,0	1,8	3,6	6,4

Enpleguaz ari garena, ezin aipatu gabe utzi enplegu partzialen fenomenoak. Lau enplegu partzialetik 3 emakumeek egiten dituzte, hau da, enplegu partzialen % 76a emakumeek egiten dute. Lanean dauden Nafarroako emakumeen laurdenak (% 25ak) lanaldi partziala du, gizonen % 6,5aren aldean³. Kontratu motei erreparatuz gero, gizonei egindako behin-behineko kontratu bakoitzeko bina egin zitzaizkien emakumeei Malerrekan 2021ean⁴. Horrek guztiak soldatan, eta jakina, pobrezia arriskuan eragin handia du.

Emakumeek “Bentetan”, Martiko enpresan edota zerbitzuetan egiten dute lan gehien bat, komertzio txikian ere. Emakume baserritarrek ere hor daude, baina ez dakit hauek asko kotizatu ote duten.

³ Zainketen erradiografia Nafarroan, INAI/NABI, 2020.

⁴ Diagnostico de igualdad: Valle de Malerreka y municipio de Bertizarana, 2022.

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Gauzak horrela, Malerrekako emakume eta gizonen lan merkatutako aukerak egun ez dira berdinak, eta emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzeko beharra dagoela ikusten da.

2. Emakume eta gizonen arteko soldata-arrakalak

Malerrekako biztanleen batezbesteko soldata gordinari erreparatuko diogu atal honetan hainbat adierazleren bidez.

SOLDATA GORDINA	Orokorra	Gizonak	Emakumeak	Genero-arrakala	Bertakoak	Atzerrian jaiotakoak	Jatorri-arrakala
NAFARROA	28.459,4	31.254,7	25.309,9	% 19	29.136,1	20.576,2	% 29,4
MALERREKA	26.204,5	28.952,5	22.715,7	% 21,5	26.910,1	19.366,9	% 28
ARRAKALA (Nafarroa eta Malerreka artean)	% 8 gutxiago Malerrekan	% 7 gutxiago Malerrekako gizonak	% 10 gutxiago Malerrekako emakumeak	Arrakala 2,5 puntu handiagoa da Malerrekan	% 8 gutxiago Malerrekan	% 6 gutxiago Malerrekako atzerritarren artean	Jatorri arrakala 1,4 puntu baxuagoa da Malerrena Nafarroan baino

Datuak ikusita, ondorio hauek azpimarra daitezke:


- Malerrekako emakumeek urtean jasotzen duten soldata gordina gizonena baino askoz baxuagoa da, % 21,5 baxuagoa zehazki. Aldea, Nafarroakoa baino handiagoa da.
- Malerrekako soldata gordinak baxuagoak dira Nafarroakoak baino; bai gizonenak, bai bertan jaiotakoak, bai eta atzerritarrenak ere. Alde handiena, berriro ere, Nafarroako emakumeen eta Malerrekako emakumeen artekoa da, 10 puntukoa.
- Hala ere, arrakala guztietan handiena, bertakoen eta atzerrian jaiotakoak arteko soldaten aldea da, % 28 gutxiagoko soldata baitute atzerrian jaiotakoak. Kasu honetan, aldiz, Malerrekako aldea txikiagoa da Nafarroakoa baino.

Datuek argi erakusten dute emakumeek askoz diru iturri baxuagoak dituztela gizonen baino. Datuak larriagoak dira adineko pertsonen artean, pentsioen genero-arrakala % 37koa baita (*Ministerio de empleo, 2022*). Datu horrek pobrezia feminizazioaz hitz egitera garamatza, hau da, emakumeak gero eta pobreak direnaren fenomeno eta pobrezia gero eta gehiago zabaltzen ari dela emakumeen artean. Neurri zuzentzaileak jartzea beharrezkoa izango da Malerrekako biztanleria osoaren pobretzeari ere lotzen baitzaio fenomeno, emakumeak biztanleriaren erdia baitira.

4.3 ZAINZA LANAK ETA BEHARRAK

Zaintza beharrez hitz egiten denean bizitza duin bat izateko beharrezkoak diren zaintzei buruz ari gara. Zaintza lanei buruz hitz egitean, ordea, bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lanei buruz hitz egiten dugu. Batetik, gaur egungo gizartearen zahartzeak ekarritako zaintza beharren gorakadak, eta bestetik, zaintza beharrak asetzeko emakumeentzat dakartzaten ondorio kaltegarriak ikusarazteak ekarri dute zaintza lanak agenda politiko eta sozialean txertatzea.

Gauzak horrela, epistemologia feministek **zaintza lanen hiru ezaugarri nagusiak** azpimarratu dituzte:




1. Zaintza lanak ia ehuneko ehunean emakumeek asetzen dituzte.
2. Zaintza lanen % 86tik gora etxeetan, familiako emakumeek ase ohi dituztela. Beraz, behar gehienak musu truk asetzen dira.
3. Zaintza lanen gehiengoa ikusezina dela, ez da kontabilizatzen ez neurtzen, eta asko ekonomia ezkutuan ematen da. Horrek zaildu egiten du zaintza beharrak eta lanak balioan jarri eta asetzeko modu justuago bat bilatzea.

Era berean, ezinbestekoak dira zaintza lanak bizitza duin baterako, pertsona oro baita jaiotzen denetik hil arte dependientea maila batean nahiz bestean, eta denok behar dugu norbaiten laguntza.

Zaintza beharrak ugariak eta anitzak dira. Ekonomia feministatik hainbat sailkapen proposatzen dira. **Batetik, lan moten sailkapena dago.** Lehena; etxeko lanak, hau da, bizitzeko eremua eta oinarritzko beharrak asetzeko lanak, etxea garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, garbitasuna, besteak beste. Bigarrenik personen zaintza; adingabeena, pertsona helduena, gaixoena, menpekotasun egoeran daudenena eta abar. Eta hirugarrena, personen eta norberaren ongizatearen ardura hartzea; mediku zitak buruan izan, osasuna, elikadura planifikatu, urtebetetze edo ospakizunen ardura, babes psikologikoa eskaini. Azken honi ardura mentala ere deitu izan zaio.

Bestetik, zaintza behar horiek asetzeko moduak sailka daitezke. Aurrez esan bezala, modu erabiliena familia barruan asetzeko izan ohi da. Bigarrenik, esku-lana kontratatuz zuzenean. Hirugarrenik, zerbitzu publikoen bidez (gehienak *co-pago* bidez). Eta azkenak, komunitatean edo babes taldeen bidez.



Banaketa hau, ordea, ez da bat ere parekidea. Familiaren bidez zaintza beharren % 86 inguru asetzen da. Beste % 7a ekonomia informalean kontratua da, eta geratzen den % 7a zerbitzu publikoen bidez, kontratu formalen bidez eta komunitate edo babes laguntzen bidez⁵, 2016ko Espainiako datuen arabera. Nafarroako etheen % 13ak du zaintzarako laguntzaren bat kontratatua⁶.

Jarraian, Malerrekako zaintza behar eta lanen erradiografia hiru ataletan banatu dugu.

1. Zaintzak asetu beharraren “kondena”

Gizarte Zerbitzuen bidez eskualdeko zaintza beharrak identifikatu eta asetzeko bideak topatzen saiatzen dira, beste zereginen artean. **2023an 46 pertsoneri ematen zitzaizen zerbitzua Gizarte Zerbitzuetatik; 28 emakumeri eta 18 gizoni.** Beharrak askoz handiagoak dira, ordea. Baina zaintza beharrak asetzea familia barruko baliabideekin egiten da gehien bat: familiako emakumeen eskulana eta denbora izaten da baliabide nagusia.

Familiek espero dute etxeko edo inguruko emakumeek zainduko dituztela menpekoak edo adinduak. Horrela pentsatzen dute familiek, baina baita emakumeek ere. Dena uzten dute besteak zaintzeko; lana, aisia, lagunak, osasuna... kondena bat bezala bizi dute askok, baina “tokatu zaidan kondena” moduan. Era berean, inork ez du nahi bere alabak zaintzaren kondena hori pairatu behar izatea. Baina ez dute imajinatzen haietzako beste alternatiba bat bilatzea (eguneko egoitzak, kanpo laguntza...). Zaintza gaietan, badirudi ez dugula aurrerapausorik eman azken urteetan.

Hitz horiek iradokitzen dute zaintzaileen osasuna zaintzea dela gaur egungo beste erronketako bat. Gaur egun, administrazioak zaintzaile, senitarteko edo profesionalentzat eskaintzen dituen laguntza-taldeak daude. Baina ez Malerrekan. Egia da talde horiek arrakasta izateko zaintzaileek ikusi behar dutela laguntza behar dutela, eta horietan parte hartzeko denbora izan behar dutela.

Bestalde, zainketen gehiegizko lan zamari aurre egiteko, beste irtenbide bat zama hori birbanatzea da. Lan horiek etxeko pertsona guztien artean banatzea, alegia, gizonak eta nerabeak barne. Teoria sinplea izan arren, oraindik kontzientziazio lan handia egin behar da puntu horretara iristeko. Horrez gain, enpleguari eskaintzen dizkiogun denborak birbanatzea ere eskatzen du proposamen honek.

⁵ *Euskal demokrazia patriarkala*, Jule Goikoetxea, 2020 Txalaparta.

⁶ *Zainketen erradiografia Nafarroan*, INAI/NABI, 2020

2. Zaintza zerbitzuak Malerrekan

Zaintza beharrak adin-tarte guztietan daude, eta horregatik, behar horiek asetzeko dauden zerbitzuak zerrendatzen dira atal honetan.



Donezteben **0-3 bitarteko haurrentzako** udal haur eskola dago. Bertan 30 plaza daude. Sunbillan Kabinetxe bat dago 6 plazakoa. Malerreka mailan 36 plaza horiek daude soilik. Aipatu beharra dago 2024-2025 ikasturtetik aurrera haur eskolak doakoak izango direla, eta beraz, eskaera kopuruak ere gora egingo duela.

Uda garaian **3 eta 9 urte bitartekoentzako** ludoteka eskaintzen da Malerrekan. Zerbitzuaren helburua eskolako oporretan lana eta zaintza uztartu ahal izatea da, besteak beste. Horrelako zerbitzuak izatea garrantzitsua da emakumeen enplegu-aukerak errazteko, elkarrizketatutako pertsonak adierazi duten bezala.



Nerabe eta gazteei begira ez dago eskaintza publiko handirik, kirol eta kultur eskaintza puntualak izan ezik. Aterpe baten falta sumatzen dute. Gainera, kontuan izan behar da mutilek gazteentzako lokalak edo gaztetxeak gehiago erabiltzen dituztela neskek baino (izan ere, kuadrilla zabalagoak dituzte, denbora libre gehiago dute, eta neskek baino leku gehiago hartzeko jarrerak izaten dituzte). Horregatik, espazioren bat atontzeko aukerarik balego, aurrez elkarbizitza eta espazioen erabilerak lantzea mereziko luke, berdintasuna bultzatzeko.



Menpekotasuna dela eta zaintza beharrak dauzkatenentzako egoitzarik ez dago Malerrekan; ez pisu tutelaturik, ez eguneko zentrorik ere. Elizondo, Lesaka eta Bera/Vera de Bidasoako egoitzak dira mankomunitateko herrietatik gertuen daudenak, eta doako garraioa bermatzen da zerbitzu horietara. Zerbitzu horiek erabiltzen dira eta, gaur egun, bieran dago itxaron zerrenda. Hala ere, gehienek zaintza etxean jasotzea erabaki dute.

Azkenik, **Etxez Etxeko zerbitzua** badago. Zerbitzu publikoa da eta jardun osoan dauden ia bost langile-publiko ditu. Zerbitzua oso ondo baloratua dago erabiltzaileengandik, eta prezioz eskuragarria da (7 euro ordua gehienez).


Duela hainbat urte “**Jubilotekak**” ireki ziren Sunbillan, Ezkurran, Donamarian eta Zubietan. Oso esperientzia ona izan dela baloratzen dute gizarte langileek. [Komunitatea sortzen ari da zenbait herrietan Jubiloteken inguruan](#). Horietan, astean behin edo bitan dinamizatutako jarduerak daude, baina jarduera horietatik kanpo komunitatea hasi da espazio hori erabiltzen, bai adinekoek, bai hurrekin jolasteko espazio estaliak bilatzen dituzten familiek ere.

3. Zaintza beharrak asetzeko enpleguak

INAI/NABIk 2021an argitaratutako ikerketan⁷ esaten da Nafarroan etxeko lanetan eta zaintzan lanetan diharduten 9.000 pertsona inguru daudela Nafarroan. Horietatik, 6.811 pertsona daude altan emanda “Etxeko enpleguaren sistema berezian” Gizarte Segurantzian. Horrela, datuak berresten du irregulartasuna dela zaintza-enpleguen ezaugarri nagusietako bat. Beste ezaugarri bat, hasieran aipatu dugun moduan, feminizazioa da, afiliazio horien % 90a emakumeak baitira, eta atzerrian jaiotakoak % 40a.

Malerrekako datuek antzekoa erakusten dute. Gizarte Zerbitzuetan bakarrik, pertsonen zaintzan lan egiten duten 78 pertsona baino gehiago daude identifikatuta. Horietatik 60 interna moduan dabilta lanean. 78 zaintzaile horietatik 70 emakumeak dira eta emakume horietatik 56 daude interna moduan. Lau gizon ere identifikatu dituzte lan modalitate horretan.

Enplegu hauek gehienetan informalak dira eta, gainera, oso lotuta daude prekarizazioari, esplotazioari eta, maiz, tratu txarrei. Horrela berresten da Nafarroako ikerketan⁸. Behean jaso ditugu ikerketa honetako hainbat datu:



1. Etxeko langileen % **17,7ak asteen 40 ordu baino gehiago** egiten ditu lan, eta beste % **9,7ak asteen 61 ordu baino gehiago**.
2. Beren lanpostuetan ahozko **indarkeria jasan dutela** adierazi dute etxeko langileen % 38ak, eta hauetatik % 9ak indarkeria sexuala eta % 5ak fisikoa.
3. **Soldatak** gutxieneko enplegu soldatak ezarritako 1050 eurotik beherakoak dira gehienak, % 22ak 375 eurotik behera jasotzen du bere lanaren truke.
4. **Oporrak** izateko eskubidea soilik % 64ak izan dute, ikerketan parte hartutako 190 etxeko langileen artean; legeak ezarritako soldata gehigarriak % 57ak soilik jaso ditu.
5. Etxeko langile **atzerritarren artean ikasketa maila altuagoa** da bertakoen artean baino. % 16ak unibertsitateko ikasketak ditu. Baina hauetatik % 79ak ezin izan ditu ikasketak homologatu.

Lan-harreman gehienak langilearen eta familia kontratatzailearen artean egiten dira zuzenean.

⁷ *Las empleadas del hogar en Navarra: Análisis de sus condiciones laborales y de su proceso de regularización*. Begoña Elizalde, Irene Lapuesta, Magdalena Díaz Gorfinkiel, Victoria Bogino. INAI/NABI 2021.

⁸ IDEM.

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Gizarte Zerbitzuen bidez etxeko langileen lan eskubideen inguruko informazioa banatzen zaie bai familiei bai eta langileei ere, aukera dagoenean. Horretarako hainbat informazio-orri ditu zerbitzuak, askok ONGek edo Nafarroako Gobernutik etorriak.

Elkarrizketatuen bidez etxeko langile “internek” bizi dituzten hainbat egoera gogor jaso ditugu dokumentuan, datuak bezain garrantzitsuak baitira testigantzak:

Egunean bi ordu libratzeko eskubidea dut. Baina askotan ez dut hartzen, bi ordu horietan ez baitago inor Juan Mari zaintzeko.

Gauetz Pilarren gelan egin behar nuen lo, aurreko zaintzaileak horrela egiten baitzuen. Ezin nuen lorik egin, gauetan esnatzen zelako ametsetan. Hil aurreko bi asteetan bere ondoan eserita egotera behartu ninduten, gau eta egun, hil zen arte. Hil zenean, pardela aldatu eta janzteko eskatu zidaten. Niretzat gogorra izan zen, jada gorpua zelako. Azkenean maitatzen dituzun pertsonak dira...

Mugikorra piztua izatea debekatua izan dut lan askotan. Pentsatzen dute ezingo duzula zaintzen duzunaren ardura hartu. Baina ni egun osoan nago Josetxorekin (...) Ez dut harreman handirik jendearekin; nire herrikideak lanean daude, bizilagunekin ezin dut hitz egin mesfidantzak daudelako baserrien artean, urruti bizi naiz... Okerrena da bakardadea. Ez duzula norekin hitz egin.

Gaixo egon nintzen, baina nola joango nintzen medikura? Zaindu egin behar nuen Juan Mari! Eskerrak hitzordu bat zuen medikuarekin. Medikiak esan zidan laguntza behar nuena ni nintzela eta atsedean hartzeko. Pastilla batzuk eman zizkidan.

Ez da kasualitatea internen enpleguari “XXI. mendeko esklabotza”⁹ deitzea. Errealitate honi aurre egiteko ezinbesteko da bakardadearekin haustea. Eskualdeko mediku, erizain, gizarte langileek badute aukera pertsona hauekin harreman minimoak izateko. Bestetik, familiekin ere kontzientziazio lana egin beharra dago.

Zaila da etxeko eta zaintzako langileen arteko sareak sustatzea, ez baitute denborarik ez eta konfiantzarik taldeetan elkartzeko. Hala ere, Nafarroa mailan eta hainbat eskualdeetan badira etxeko langileentzako aholkularitza eta laguntza zerbitzuak. Gehienak lan eskubideei daude lotuta, baina kolektibo hauen beharra zabalagoa da; laguntza psikologikoa eta harremanen behar handia izaten baitute.

Bestalde, lan aukerei dagokionez, eskualde mailan *gidatzeko baimena izatea eta euskara ezagutzeak etxeko langile “internentzako” aukera berriak irekitzeko bidea izan daiteke*ela diote Gizarte Langileek.


⁹ https://www.eldiario.es/economia/esclavitud-moderna-interna-espana-siglo-xxi-si-sobraba-comia_1_10082397.html

4.4 EMAKUMEEN PRESENTZIA


Historikoki emakumeei espazio publikoa ukatu izan zaie, beren presentzia eta jarduera familia barrura mugatuz. Ikusi besterik ez dago emakume bertsolarien historia¹⁰, plazarik ezean etxean kantatzen baitzituzten bertsoak.

Plazan, politikan eta herriko jardueretan emakumeen presentzia handitzen ari da, baina ez oraindik gizonen presentziaren pareko. Parekidetasunera iristeko baldintza da, ordea, plaza maila berean partekatzea, bertan baitaude baliabideak, prestigioa eta aitortza. Malerrekan egoera hobetzen ari da, eta hala jaso zuen 2023ko Malerreka berdintasunari buruzko diagnostikoak. Hala ere, badago oraindik aldea:

Udal Ordezkariek 2023-2027



Malerekako elkarten zuzendaritzak sexuaren arabera (2024)



Iturria: Malerekako Mankomunitatea

Udal ordezkarien artean gaur egun oraindik gizonen presentzia altuagoa da. 73 ordezkarietatik 47 dira gizonak eta 26 emakumeak. Elkartegintzan emakumeen presentzia handiagoa da. Batez ere kultura, eta hezkuntza gaietan. Kirolean, aldiz, gizon gehiago daude.

¹⁰ <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2498/plazida-otano>

4.5 GENERO ROL ETA ESTEREOTIPOAK GIZARTEAN ETA KULTURAN

“Zaintzen erradiografia 2020”¹¹ INAI/NABI institutuak egindako ikerketan Laura Martinez Jimenez egileak esaten du genero rol eta estereotipoek oraindik Nafarroako emakume eta gizonen bizitzak baldintzatzen dituztela. Nafarroa eta Espainiar Estatu mailan egindako hainbat inkestetan oinarritzen da horretarako. Datu hauek berreskuratu ditugu ikerketatik:

1. Genero-roleri jarraiki, umeen eta zaintzen ardura emakumeena izaten jarraitzen du Nafarroan. Datu bat emate arren, **seme-alaben zaintzarako baimenen % 63a emakumezkoek** hartzen dituzte.
2. Baina era berean, **zaintzen ardura hartzeak emakumeen garapen profesionalean eragina duela** pentsatzen dute emakumeen % 64ak eta eragina izan dezakeela emakumeen % 90ak.
3. **Denbora libreari** erreparatuta, emakumeek astean zehar 20 minutu gutxiago dute aisialdirako gizonek baino. Asteburuetan aldea ordubetekoa da.
4. Denbora libre gehien izan ohi duten gizonen profila, ikasketa maila gutxi duten gizonak dira. Era berean, **denbora libre gehien duten emakumeak bakarrik bizi direnak dira**. Hau da, emakumeengan eragina du familiarekin bizitzeak (denbora librea kentzen die) gizonei, aldiz, ez horrenbeste.
5. **Berdintasunaren aldeko jarreraren** inguruan, jarrera aurrerakoiena dutenak hezkuntza-maila altuagoa eta diru sarrera altuagoa dutenek eta adinez gazteagoak direnek izan ohi dituzte.
6. Azkenik, **emakumeek askatasun** gehiago lortzeko aukeren inguruan galdetuta, “**gizonek nahiz emakumeek uste dute ordaindutako enplegua dela emakumeentzat berdintasun handiagoa lortzeko biderik onena**”.

Malerrekara etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenek erresistentziak aurkitzen dituzte batzuen aldetik.

Pankartak edo kartelak jarri izan ditugunean askotan hautsi izan dituzte.

Ez da erraza berdintasunaren aldeko posizionamendu garbia erakustea, rola eta estereotipoak oso barneratuta baitaude inguruan.

¹¹ Zaintzen erradiografia, INAI/NABI, 2020.

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Eskolako lehen Hezkuntzan SKOLAE programa dagoen arren, DBHn dauden nerabeen artean ez da berdintasunaren aldeko jarrerarik sumatzen bereziki. Gainera, aukera gutxi dago mankomunitatetik hezkidetzeta-programa bat bultzatzeko, Nafarroako Gobernuak ez dituelako diruz laguntzen, eta DBHn ez dagoelako guraso elkarterik.

Kirola eta kulturari dagokionez, ohikoa da generoaren arabeko rolak errepikatzea; jarduera batzuetan emakumeak egotan dira gehiago eta beste jarduera batzuetan gizonak. Espazioak eta jarduerak sexuarean arabera banatzeak, askotan sozialki errekonozimendua mailakatzea dakar; jarduera maskulinoek aitorpen gehiago izan ohi dute eta femeninoagoen gutxiago.

Ferietan hazienda eta aizkorak tarteko, gizonak dira gehienak. Rallyetan ere gizonak mugitzen dira gehien bat. Kiroletan, futbola edo pelota dela, gizon asko mugitzen dira. Egia da emakumeen kirola ere badagoela, esaterako ADOS pilota taldea bezala, eskubaloia edo Dantza taldea... Hala ere, zenbait gauza aldatzen ari dira. Adibidez, lehen Kintoak soilik gizonen ospatzen zituzten, gaur egun aldiz, emakume eta gizonen.

Azken urteotan aldaketak sumatzen dira. Batzuetan oso modu konszientean bultzatu nahi izan parte hartze parekidea, esaterako joaldunen artean. Nahiz eta auzo batzuetan oraindik erresistentziak egon.

Beste batzuetan, aldaketak oharkabean pasa dira, Kintoen ospakizunetan bezala. 70. Hamarkadaren bueltan, soilik gizonen ospatu ohi zuten soldaduskaren aitzakiapean. Egun, emakume-gizon eta adin tarte gehienetan ospatzen den festa bihurtu da.

Berdintasunaren aldeko ekimen gehienek, edo emakumeen ahalduntzearekin lotura dutenak, Gizarte Zerbitzuetatik antolatu izan dira, baina hauei ez dagokien lan zama bezala bizi dute. Hala ere, ekimen horiek ezinbestekoak direla azpimarratzen dute. Horregatik, "berdintasun teknikari espezifikoko" baten beharra ikusten dute, emakumeen ahalduntzearen gaiak, indarkeria matxista, herritarren sentsibilizazioa eta udal barruko genero-gaiak behar bezala kudeatzeko.

Elkarrizketatuek pentsatzen dute Musika Eskolaren eta Liburutegiaren bidez ekimenen bat sustatu daitekeela emakumeen ahalduntzeari begirakoa. Hala ere, genero-rol eta estereotipoak hausteak, oraindik, zailtasunak dakar ditzake Malerrekan.

Pauso bat aurrera ematen duzunean, plazara atera edo gizonena den espazio batean parte hartu, garaipena ez da iritsi. Gero gaizki begiratzen zaituzte edo hitza kendu. Gogorra da berdintasuna defendatzea.

Malerrekako pertsona erreferenteen aldetik gai hauekiko babes eta jarrera irmoago bat beharrezkoa dela sentitzen dute elkarrizketatuek.

4.6 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

Emakumeon aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, pertsoneri bere bizitza askatasunez bizitzea oztopatzen duen indarkeria. Indarkeria mota hau, historikoki emakumeek bizi izan duten menpekotasun egoerek babestu eta normalizatzen dute. Horregatik, indarkeria mota horrekin amaitzeko prebentzio neurri garrantzitsuenetakoa da emakume eta gizonen berdintasunean oinarritutako gizarte bat sustatzea.

Horrez gain, indarkeria matxistaz ari garenean, garrantzitsua da hurrei buruz ere hitz egitea. Haur eta nerabeen babeserako LOPIVI legearen baitan, haurren aurkako indarkeriari aurre egiteko neurriak zorrotzu egin dira, eta **haurren beharrei lehentasuna** ezartzeko pausoak ematen ari dira administrazioak pixkanaka pixkanaka.


1. Arazoaren dimentsioa

Nafarroan urtez urte emakumeen aurkako indarkeria matxista gero eta gehiago salatzen da. Arrazoa ez da zertan izan gero eta gehiago ematen dela. Ziurrenik, gero eta kontzientziazio gehiago dago emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan eta salaketak jartzeko aukera eta bideen inguruan.

Salaketa gehienak Polizia Foralean egiten dira gaur egun, baina baita Guardia Zibilean eta Polizia Nazionalaren bidez ere. Gizarte Zerbitzuen bidez kasuak identifikatu eta kudeatu daitezke, eta bertako zerbitzuak eskuratzeko ez da beharrezkoa salaketarik jartzea. **Malerrekan 2023an 16 salaketa izan ziren.**

INAI/NABIren arabera, **Nafarroako iparraldean 112 salaketa egon dira 2023an**¹². Salaketa hauen artean daude sexu-indarkeria, familia barrukoa, bikotekide edo bikote ohiek eragindakoak eta urruntze aginduak urratu dituzten pertsonen kontrakoak ere. Aipatzekoa da adin-tarte guztietako emakumeek jarri dituztela salaketak, 17 urtetik beherakoek eta 65 urtetik gorakoek ere.

Salaketa kasuek, ordea, ez dute erakusten kasuen atzean dauden biktima kopurua. Izan ere, batzuetan pertsona batek salaketa bat baino gehiago jarri ditzake urte berdinean. Bestalde, **genero-indarkeria salaketa baten atzean, adingabeko haurren babesgabetasuna ere egon daiteke.** Beraz, zaila da jakitea zenbat pertsoneri eragiten dien zuzenean indarkeria mota honek.



¹² GRAFIKOA: Informe anua laño 2023, Denuncias policiales por violencia contra las mujeres en Navarra. INAI/NABI, 2023.

Azken urteotan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko araudiek¹³ aurrera pauso handiak eman dituzte. Aldaketa aipagarrienak hauek dira:

1. **Salaketarik gabe babes neurriak** eta laguntzak eskatzeko eskubidea.
2. **Haur eta nerabeek zuzenean edo zeharka pairatzen duten indarkeria** emakumeen aurkako indarkeriari lotutakoa indarkeria matxistatzat hartzen da orain, kontabilizatzen da eta haur hauek babes eta laguntzarako eskubidea dute.
3. Bikote barruko, familia barruko eta bikote ohien indarkeriaz gain, **bestelako emakumeen aurkako indarkeriak ere zigortu eta artatzen dituzte araudi berriek**: indarkeria sexuala, emakumeen trafikoa sexu helburuetarako, feminizidioa, ziber-jazarpen sexista, mutilazio genitala eta ezkontza behartuak, besteak beste.
4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko **politikek gizoni, mutikoei eta gizarte osoari zuzenduak izan behar dira**, indarkeria honekin amaitzearen ardura denongan jarritz.

2. Nola artatzen da emakumeen aurkako indarkeria Malerrekan?

Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria artatzeko, Nafarroako Gobernuak INAI/NABIren bidez, talde espezializatuak ditu: “Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko taldeak” izena dute eta EAIV bezala ezagunak dira. Egun, sexu-indarkeriari aurre egiteko zentro bat ere ireki dute Iruñean. Laguntza talde hauen bidez, babes psikologikoa eta soziala eskaintzen da, bai emakumeari eta beren ardurapeko adingabeei ere.

Zerbitzu hauek, ordea, **Nafarroako lau lekuetan dauden arren, ez dago Iruñeatik gora zerbitzu iraunkorrik**. Ez dago larrialdi kasuetan aterpea eskaintzeko aukerarik, babes psikologikorik, aholkularitza juridikorik, ez epaitegi espezializaturik ere.

“Punto de encuentro” delakora joan behar dut Iruñearaino umeek aitarekin elkartu daitezen, biak Nafarroa iparraldean bizi arren. Gainera, askotan zerbitzua erderaz da, eta nire umeak euskaldunak dira.

Ez da behar bezala artatzen, profesionalak ez daude prestatuta eta asko epaitzen dute: “Nik familia hori ezagutzen dut eta kosta egiten zait sinestea horrelako zerbait egin dezakeela” esan zidan gizarte langile batek. Ez daukat epaia erakutsi beharrik sinets diezadan.

Indarkeria matxista kasuak kudeatzeko zerbitzuen gabezia Malerrekaz gaindiko arazoa dela azpimarratzen da. Nafarroako iparralde osoan ez baitago zerbitzu finkorik (ibiltariaren bat baino ez), nahiz eta INAI/NABIk berak urtean 112 salaketa identifikatuak dituen.

¹³ Istambuleko Hitzarmena, 2011 (Espainiar Estatuan 2014ean sartua), 14/2015 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Foru Araua, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Estatu Ituna 2017an besteak beste.

3. Erreparaziorako aukerak Malerrekan

Azken urteetan, aurrez aipatutako marko arautzaileek eta mugimendu feministak sustatutako hainbat ekarpenek mahai gainean jarri dute emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko bide bakarra ez dela epaitegiarena. **Justizia beharrezkoa den arren, prebentzioan eta erreparazioan arreta jartzea lehentasunezkoa da**, helburua indarkeria matxista horrek eragindako mina gutxitu eta berriz errepikatu ez dadin neurriak hartzea dela.

Izan ere, urte luzeetan zehar, erreparaziorako eskubidea izateko (laguntza psikologikoa, juridikoa, ekonomikoa) salaketa baten beharra zegoen, baita epai irmo batera ere. Egun, emakumeak eta haurrak babesteko indarkeria matxistaren zantzuak egotea nahikoa da, eta profesional baten txosten batek arriskua dagoela aitortzea. **Baina profesionalak jarraipen hori behar bezala egiteko prestakuntza espezifikoak behar dute**. Profesionalez ari garenean, gizarte langileez, eskolako orientatzaileez, familia medikuek eta abar ari gara.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko INAI/NABI eta Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren zerbitzuak oso egoera larri eta espezifikoak artatzen dituzte, eta denbora mugatuan.

Sei hilabeteko terapia bat eskaintzen dizute, eta horren ostean, listo, ondo jarri behar zarela suposatzen da. Urteetako minak 6 hilabeteetan joango balira bezala.

Malerrekan talde terapia luzeagoak eskaini izan dira inguruko eskualdeekin elkarlanean. Izugarri ondo baloratzen da programa hau eskaintzea, **iraunkorki eta etxetik gertu profesionalak eskainitako babesa** eskaintzen dutelako, gainera, kolektibotasuna bultzatuz.

Ezin da gaia edonon atera, ez daude leku asko seguru sentitzen garenak... frustrazioa oso handia da. Horregatik, hau bezalako taldeek arnasa ematen didate. Lehen aldía da gertatzen zaidana kontatzeko leku segurua topatzen dudala. Beldurtzen nau leku hau galtzeak.

Azken finean, ahalduntzea geure bizitza propioa erabakitzeko eta berregiteko gaitzea da, emakume izateagatik bizi izan ditugun diskriminazioez jabetuz, eta gertatzen zaiguna ez dela gertakari bakan bat, emakumeoi gertatzen zaigun indarkeria estruktural bat baizik. **Horregatik behar dira egiturazkoak iraunkorrak eta kolektiboak diren osatzeko espazioak, ahalduntze-eskolek** eskaintzen dituzten egitarau irekiak, edota indarkeria pairatu duten emakume taldeei espezifikoki zuzenduak, besteak beste.

4.7 MALERREKAKO ADMINISTRAZIOAN GENERO-IKUSPEGIA

Nafarroako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 17/2019 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen ditu tokiko administrazioen, hau da, udalek eta mankomunitateek jarraitu beharreko zereginak.

Horrez gain, aipatu beharra dago 13. artikuluan ezartzen duela Nafarroako administrazio publiko osoak bere jardura guztietan (politiken diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioetan) genero ikuspegia txertatzeko betebeharra duela.

Genero ikuspegia administrazioaren jardura guztietan txertatzeko estrategia, ekintza positiborako strategiak sustatzearekin batera, berdintasun politiketarako estrategia nagusi moduan izendatu ziren nazioartean 1995an, 1998an Europar Batasunean, 2007an Espainiar Estatuko Berdintasunerako LOI legean, eta 2019an Nafarroako Berdintasunerako 17/2019 Foru Arauan.

Horretarako, Berdintasunerako Foru Arauaren **III. tituluak ezartzen ditu berdintasunerako eskubidea bermatzeko administrazioak aurrera eramango dituen mekanismoak**, genero-mainstreamingaren estrategiarekin bat egiten dutenak. Mekanismo hauen bidez, administrazioaren jarduran genero ikuspegia txertatzea da helburua.

Mekanismo horien egoera Malerrekako mankomunitatean nolakoa den aztertu da diagnostiko honetarako udal-idazkarien eta mankomunitateko idazkariaren laguntzarekin. Ondorengo taulan jaso dira emaitzak.



MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

17/2019ko ZEREGINAK	EGOERAREN ARGAZKIA
Emakume eta gizonen ordezkariak (16.art)	Organo kolegiatu gutxi daude herri txikietan, karguak eta arloak unipertsonalak direlako. Udal talde gehienetako ordezkari politikoen artean gizonak dira gehienagoa, Sunbilla eta Donamaria kenduta. Administrazioan emakume gehiago daude.
Berdintasuna sustatzeko klausulak kontratu eta dirulaguntzetan (17. eta 18.art)	NafarLan sarean orokorrean berdintasunerako klausulak txertatzen dira. Bestelako kontratu gehienetan, exekuzio baldintzetan txertatzen dira berdintasunari buruzko oinarritzko klausula orokorrak. Dirulaguntzetan, ordea, ez. Baina ez daude asko. Orokorrean klausulei jarraipena egiteko zailtasunak daude.
Estatistikak eta ikerketak (19.art)	Udalak jasotzen dituen datu guztiak ez dira sexuaren arabera jasotzen, baina batzuk bai: <ul style="list-style-type: none"> - BAI: Errolda/Padroia, Gizarte Zerbitzuak (umeei buruzkoak batzuetan), erregistro zibilean, enplegu gaitan. - EZ: Hirigintzako partaidetza prozesuetan, hondakinen inguruko datuetan. Orokorrean ez dira aztertzen jasotzen diren datuak.
Administrazioko langileen trebakuntza (20.art)	Prestakuntzarik ez dago berdintasun gaitan. Gizarte langileek eta Enplegu teknikariak zenbait trebakuntza jaso dituzte Nafarroako Gobernuak sustatuta. Idazkarientzat ere antolatu zuten arren, hauek ez dute parte hartu hainbat arrazoi direla medio.
Komunikazio inklusiboa eta ez sexista (21.art)	Udalak erabiltzen duen komunikazioan emakume eta gizonak ikusgai egitea saiatzen dira langile batzuk. Kasu gehienetan hizkuntza ez-sexistaren bidez, batzuetan maskulino generikoa ekidinez. Irudiak ez dira kontuan hartzen askotan. Ezagutza espezializatua eta laguntza beharra aipatzen da.
Genero-eraginaren aurretzeko ebaluazioak araudietan (22.art)	Udal-ordenantzak eta xedapen orokor oso gutxi daude. Izatekotan Hirigintza arloan. Orokorrean ez da genero eraginaren aurretzeko ebaluaketarik egiten.
Genero perspektibadun aurrekontuak (23.art)	Ez da egiten.
Administrazioko pertsonalaren kudeaketa (24.art)	Enplegu babestuen planetan kontuan hartu ohi da. Bestelakoetan, deialdi orokorretan, zenbait klausula jarri izan dira, sektore maskulinizatuetan emakumeen sarbidea errazteko. Baina orokorrean oso gutxi. Lan deialdi publiko gutxi egiten dira.

Berdintasun politikak garatzeko baldintzak

Foru arauak jasotzen dituen zereginak aurrera eramateko ezinbestekoak diren lau lehentasun identifikatu dira, ondoko eskeman laburtutakoak.

Malerrekako administrazioan genero-ikuspegia txertatzeko mekanismoen egoera ikusita, berdintasun politikak garatu ahal izateko zenbait baldintza asetzeko beharra azaleratu da diagnostiko prozesuan zehar:

Malerreka eskualde pobrea da eta ez dago baliabide askorik.
Konpromiso politikoa eta herritarren aktibazioa ezinbestekoak izango dira berdintasun gaiek udaletan aurrera egiteko.

Malerrekak badu zailtasun bat udal politikak mankomunatzeko.
Berdintasun politikak mankomunatzea eta Berdintasun teknikari bat izatea Nafarroako Gobernuak dirulaguntzen bidez egokia izan daiteke.

*Berdintasun politika guzti hauek Malerreka mailan **garatzeko bide-orri propioa behar da, Malerrekaren egoerara egokituia.***

Hau esanda, baliabide ekonomiko eta teknikoaren beharra nabarmena da, gainontzeko arloek ez baitute ez denborarik ez ezagutzarik berdintasuna sustatzeko zereginari erantzuteko.

Azkenik, esatea Nafarroaren iparraldeko mankomunitateen artean Malerreka eta Mendialdea direla Berdintasun teknikaririk ez duten bakarrak. INAI/NABI institutuak diruz laguntzen du berdintasun teknikariaren kontratazioa, baldintza batzuk betez gero¹⁴.

LEHENTASUNAK



¹⁴ [Tokiko entitateentzako berdintasun teknikaria kontratatzeak dirulaguntzak \(INAI/NABI\).](#)

5 ONDORIO NAGUSIAK ETA AURRERA BEGIRAKO KONPROMISOAK

Malerrekako emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoaren ondorio nagusietako bat izan jasotako datuen arabera berdintasuna sustatzeko beharra nabarmena dela Malerrekan. Diagnostikoaren laburpena jasotzen da ondorengo taulan 7 ataletan.

<p>1. Biztanleriaren datu orokorrak</p>	<p>Populazioaren zahartzea oso nabarmena da, batez ere Malerrekako herri batzuetan. Biztanleriaren zahartzeak zaintza behar gehiago dakartza. Zaintza lan horiek emakumeen bizkar geratzen dira, bertakoengan, baina baita emakume migratzaileengan ere, gero eta gehiago.</p> <p>Biztanleriaren zahartzeak pentsioekiko eta zerbitzu publikoekiko menpekotasun handiagoa dakar.</p>
<p>2. Genero arrakalak ekonomian</p>	<p>Malerrekako emakumeek urtean jasotzen duten soldata gordina gizonena baina askoz baxuagoa da, % 21,5 baxuagoa zehazki. Nafarroakoa soldata-arrakala % 19koa da. Nafarroa mailan, pentsionisten artean generoaren soldata-arrakala % 37koa da. Beraz, Malerrekako emakumeak gizonak baino pobreagoak dira, alde handiarekin.</p>
<p>3. Zaintza beharrak eta lanak</p>	<p>Familiaren bidez zaintza beharren % 86 inguru asetzen da. Gehien bat familiako emakumeek egiten dituzten lan hauen eta askok “kondena” bezala bizi dute. Zerbitzu publikoek eta lan kontratu formalek zaintza lanen % 7a asetzen dute.</p> <p>Etxeko edo zaintza langileen bidez, kontratu informalek bidez, gainontzeko % 7a asetzen da. Egun, XXI. mendeko esklabutza deitzen zaio emakume zaintzaile hauek pairatzen dituzten baldintza gogorrak direla eta. Deskantsurako aukerarik ez, baja edo osasun baimenik ez, soldata oso oso baxuak, eta askotan inkomunikazio egoerak edo jazarpen sexual edo arrazistak pairatzen dituzte.</p>
<p>4. Genero rol eta estereotipoak gizartean</p>	<p>Nafarroan denbora libre gehien duten emakumeak bakarrik bizi direnak dira. Ez da berdina gertatzen gizonekin, ordea. Enplegurako aukerek emakumeei askatasun gehiago ematen diete, aldiz, zaintza ardurek pobretu eta prekarizatu egiten ditu emakumeak.</p> <p>Aisia, lan mundua bezala, banatuta dago nesken eta mutilen artean. Kirol mota batzuk, kultur ekintza batzuk oso feminizatuta daude eta beste batzuk maskulinizatuta. Adin guztietan ikusten da banaketa, hau da, genero-rol eta estereotipoak martxan segitzen dutela Malerrekan.</p> <p>Berdintasunaren aldeko ekimenekiko erresistentzia batzuk identifikatu dira, eta beharrezkoa da Malerrekako pertsona erreferenteen babesa eta jarrera irmoagoa gai horiekiko.</p>

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

5. Emakumeen presentzia	Gaur egun, udal batzarretan gizonetzkoen presentzia handiagoa da. 73 ordezkarietatik 47 gizonetzkoak dira eta 26 emakumezkoak. Sunbilla eta Donamaria dira salbuespena. Hala ere, elkartegintzan emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da. Bereziki kultura eta hezkuntza arloan. Kirolean, aldiz, gizon gehiago daude.
6. Emakumeen aurkako indarkeria matxista	<p>Malerrekan, 2023 urtean indarkeria matxistagatik 16 salaketa jaso zituzten Nafarroako hainbat polizietan. Baina jakina da kasu guztiak ez direla salatzen. Nafarroaren iparraldean 2023ko salaketak 112 izan ziren.</p> <p>Indarkeria hori pairatu dutenentzako zerbitzu finkorik ez dago Nafarroa iparralde osoan, eta Iruñaraino jaitsi behar dira.</p> <p>Errealitate horri aurre egiteko proposamenetako batzuk hauek dira: hurbileko udalerriekin batera lan egitea, laguntza taldeak sustatzea eta erreparazioa lantzeko eta salaketa soziala bultzatzeko ekimenak bultzatzea.</p>
7. Genero ikuspegia Malerrekako administrazioan	<p>Malerrekako administrazioak bere jardueraren bidez berdintasuna sustatzea lege eskakizuna da, bestek beste Nafarroako 17/2019 Berdintasunerako Foro Legeak jasotzen dituen prozeduren bidez.</p> <p>Zeregin hauek betetzeko, berdintasunean aditua den teknikaria izatea eta Malerrekako administrazioko langileak trebatzeko formakuntza dira bultzadarik handiena.</p>

Diagnostikoa kontrastatzeko prozesuan parte hartu duten udal ordezkari eta elkarteetako ordezkariak aztertutako 7 eremuetan lehenetsunak markatu dira eta aurrera begirako konpromiso sorta bat hartu da. Konpromisoak eta bide-orria Nafarroako Emakume eta Gizonen berdintasunerako Plan Estrategikoan oinarrituta diseinatu da.



AURRERA BEGIRAKO KONPROMISOAK: 2024-2026

1. KONPROMISOA: Malerrekako Mankomunitatea berdintasun politikak sustatzeko gaitasunez hornitzea.			
EKINTZA	Nola	Noiz	Arduraduna
1.1. Malerrekako mankomunitateko udal guztietarako berdintasun-teknikaria kontratatzea jardun osoz.	Udaletxeetan azterketa-ekonomikoa eginez.	2024-2025	Udal ordezkariak
1.2. Berdintasunari buruzko monografikoak egitea gutxienez urtean bi aldiz Prebentzio Batzordean udal ordezkariekin Berdintasunerako konpromisoen eta bide-orriari jarraipena emateko.	Prebentzio batzordearen bidez.	2024ko irailetik aurrera	Prebentzio Batzordea
1.3. Malerreka mankomunitateko eta udaletako langileen berdintasun gaietan trebatzeko formazioa ematea, lanari zuzenean lotutako gaietan (berdintasun klausulak kontratazio publikoan, genero-eragina neurtzeko tresnak, komunikazio ez-sexista, eta abar).	Bortziriak, Baztan eta inguruko berdintasun teknikari eta udalekin elkarlanaren bidez.	2025	Mankomunitatea Berdintasun teknikaria
1.4. Legealdi bakoitzaren hasieran formakuntza eskaini udal ordezkariari.	Aztertuz zertan trebatu eta nor. Ondoren baliabideak jarritz.	2026	Berdintasun teknikaria Ordezkaritza politikoak

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

2. KONPROMISOA: Malerrekako emakumeen bizi-baldintzak hobetzea; soldaten genero-arrakala eta pobreziaren feminizazioaren kontrako neurriak hartuz eta emakumeen enplegarritasuna sustatuz.			
EKINTZA	Nola egingo dugu	Noiz	Arduraduna
2.1. Emakumeen kontratazioa bultzatzea Nafar Lansarearen, enplegu-planen eta lan-deialdi publikoen bidez.	Urtero txostena eskatuz erakunde publikoei.	2024-2026	Administrazioa Udalak
2.3. Emakumeen enplegu murrizketak saihesteko, zaintza programak indartzea ; ludoteka, gazteentzako espazioa, jubilotekek, Eguneko Zentroak...	Nafarroako Zaintza itunaren baliabideen bidez, besteak beste.	2025-2026	Mankomunitatea eta udalak Berdintasun teknikariak
2.4. Emakumeek egiten dituzten enpleguak aitortu eta ikusarazi sektore guztietan , emakumeen ekonomiari eta gizarteari egiten dioten ekarpena balioan jartzeko: emakume baserritarrena, komertzioetan daudenak, etxeko langileak, Mattikon edo bestelako industrietan...	Komunikabideen bidez, eskolen bidez, transmisioa berrmatuz.	2024-2026	Berdintasun teknikaria Udalak
2.5. Etxeko langileen lan-eskubideak edota pentsioen inguruko zalantzak argitzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzea.	Zerbitzua Baztan eta Bortziriekin batera eman daiteke, Gizarte Asegurantzaren bidez, INAlren bidez.	2025-2026	Inguruko administrazioak inplikatur

3. KONPROMISOA: Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren larritasuna ikusarazi, eta kasuen kudeaketa hobetzea.			
EKINTZA	Nola	Noiz	Arduraduna
3.1. Indarkeria matxistaren biktimak direnentzako arreta-gune bat irekitzea Nafarroa iparraldean. Horretarako, Nafarroa iparraldeko alkateen artean lan egitea INAIri eta Nafarroako Gobernuari berau eskatzeko.	Mendialdeko eskualdeekin adostuz estrategia.	2024-2026	Ordezkaritza politikoak
3.2. Indarkeria matxista pairatu duten emakumeentzako babes-talde iraunkorrak sustatzea, errehabilitazio eta erreparazio osoa lantzeko aukera izan dezaten.	Martxan dagoena indartuz. Leku egokia bilatuz Malerrekan.	2024-2026	Berdintasun Teknikariak
3.3. Indarkeria matxistari aurre egitea herri-mailako apustua dela lantzeko sentsibilizazioa egin. <i>"Hemen ere badago, ez begiratu beste aldera eta erantzunaren parte izan zu ere"</i> .	Sentsibilizazioa herrietara eta gazteetara iristeko bideak landuz.	2025-2026	Berdintasun Teknikariak
3.4. Prebentzio gisa, Malerrekako emakumeen ahaldunderako tailerrak eta ikastaroak antolatu jubiloteketan (herrika) edo inguruko eskualdeekin batera (Bortziriak, Leitzaldea, Baztan...)	Eskaintza ugarituz eta emakumeen ahaldunderako leku erreferente bat bultzatuz.	2025-2026	Berdintasun Teknikariak

MALERREKAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

4. KONPROMISOA: Malerrekatarren artean berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea; kalean, eskolan, aisialdian, eta abar.			
EKINTZA	Nola	Noiz	Arduraduna
4.1. Herriko jaietan emakume izateagatik bazterkeriarik ez jasotzeko konpromisoa hartzea ; horrela, historikoki emakumeen ekarpenak izan diren lanak balioan jarriz eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartuz.	Kintoetan, Iñauterietan, Bertso saioetan eta abar kontuan izanda.	2025-2026	Berdintasun teknikaria Guztiok
4.2. Hezkidetza proiektuak herri-mailan eragin dezan Skolae proiektuaren, guraso, familia, haur eta nerabeen aisialdiaren arteko koordinazioa bultzatu eta ekimen bateratu bat antolatzea.	Aisialdi eskaintzaren baitan, hezkidetza lantzeko ekimenak landuz gurasoekin besteak beste.	2025-2026	Berdintasun teknikaria Guraso elkarte
4.3. Emakumeen eskubideen inguruan, genero-identitateen inguruan eta harreman afektibo sexual askeen inguruan ekimenak antolatzea gizarte osoari bideratuak (M8, E28, U15, A25: nazioarteko egunak)	Ekimenak elkartegintzarekin zubiak egiteko aprobetxatuz, elkarlanean antolatuz. Familiak, eskola, mugimendu feminista, besteak beste.	2024-2026	Berdintasun teknikaria Mugimendu feminista
4.4. Berdintasunaren aldeko ekimenak eta elkartegintza babestea .	Espazio bat emanaz hedabideetan, lokal publikoak erabiltzen utziz, besteak beste.	2024-2026	Berdintasun teknikaria Administrazioa

6 ITURRIAK-BIBLIOGRAFIA:

- *Indicadores municipales*, Nastat 2023.
- *Diagnostico de igualdad, Valle de Malerreka y municipio de Bertizarana*. CEDERNA-GARALUR, 2022.
- *Lurraldean andreen presentzia desorekatzen duen antolamendua*, Gaindegia, 2020-02-04.
- *Zainteren erradiografia Nafarroan: diagnostiko-txostena*, Laura Martinez Jimenez, INAI/NABI 2020.
- *Lan empleadas del hogar en Navarra: analisis de sus condiciones laborales y de su proceso de regularización*. Begoña Elizalde, Irene Lapuerta, Magdalena Días Gorfinkiel y Victoria Bogino. INAI/NABI, 2021.
- *Malerrekako gizarte zerbitzetako datuak, 2024*.
- *Euskal demokrazia Patriarkala*, Jule Goikoetxea, 2020 Txalaparta.
- Informe anual año 2023, *Denuncias policiales por violencia contra las mujeres en Navarra*. INAI/NABI, 2023